

Kepa Garmendia Pelaez

B maila • Aipamena

Ni Kepa Garmendia Pelaez naiz. 2002ko Abenduak 10ean jaio nintzen Beasainen eta 2 urte nituela Mutiloara joan nintzen bizitzera. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Segurako Laiotz Herri eskolan egin nituen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Beasaingo La Salle San Jose ikastetxean egiten ari naiz. Nire afizioak futboleko jolastea eta irakurtzea dira batik bat.



IDENTITATE GALDUA

Eta zer naiz ni,
goizaldeko ihintzan bustita?

Eta zer naiz ni,
gaueko oskorrian gorrituta?

Eta zer naiz ni,
mendiko elurretan izoztuta?

Eta zer naiz ni,
zure begi ilunetan
galduta?

Nor naizen ni?
gizon txiki bat,
agian...

Nor naizen ni?
eskale arrunt bat,
akaso....

Nor naizen ni?
bide-lapur bat,
beharbada...

Nor naizen?

nork daki,
nor naizen...,

**zuk bakarrik
jakin dezakezu**